121 IRAILA 2014 SEPTIEMBRE

Atarrabiarako udal informazio aldizkaria
Boletín de información municipal de Villava

www.villava.es

Villava :: Atarrabia

Osoko bilkurak **[2]**
Etxebizitzak karrika Nagusian **[5]**
Nafarroako Gobernuak ez du diruz lagunduko beste herri batzuetatik Atarrabiako ikastetxe publikoetara datozen ikasle ez-garraiatuek eragiten duten gastua **[5]**
Berdinteka, berriz ere abian **[6]**
Atarrabia, berdintasunean oinarrituriko jaien alde **[7]**
Atarrabia, berdintasunean oinarrituriko jaien alde **[7]**
Euskarak ederki ematen dizu! **[8]**
El 20 de septiembre, festival de bertsolaris **[10]**
Antzerki Amateurraren III. Erakustaldia irailean **[10]**
Gazte Bizi programaren edizio berria urrian **[13]**
Atarrabiako Eguna **[14]**
Agenda **[15]**

Plenos **[2]**
Viviendas en la calle Mayor **[5]**
El Gobierno de Navarra no subvencionará el gasto por el alumnado no transportado de otras localidades a centros públicos de Villava **[5]**
La Berdinteka, de nuevo en marcha **[6]**
Villava, por unas fiestas igualitarias **[7]**
Nuevo curso en las Escuelas Deportivas Municipales **[7]**
¡Animate a aprender euskera! **[8]**
El 20 de septiembre, festival de bertsolaris **[10]**
III Muestra de Teatro Amateur en septiembre **[10]**
Nueva edición del programa Gazte Bizi en octubre **[13]**
Atarrabiako Eguna **[14]**
Agenda **[15]**



MEMORIA HISTORIKOARI BURUZKO JARDUNALDIAK / JORNADAS SOBRE LA MEMORIA HISTÓRICA

Irailaren 16tik urriaren 17ra, Atarrabian 3 erakusketa eta 3 hitzaldi eginen dira, eta era berean, 1936ko kolpearen ondorioz eraildako auzokideen omenezko ekitaldi bat / Entre el 16 de septiembre y el 17 de octubre Villava acoge 3 exposiciones, 3 charlas y un homenaje a la memoria de los/as vecinos/as asesinados tras el golpe de 1936

Zeuk erabakitzen duzu / Tú decides

Hilaren 7ra arte (igandea) zabalik 2014ko Jaien kartela aukeratzeko bozketa / Hasta el domingo 7 puedes participar en la elección del cartel de las Fiestas 2014

Argitaratzailea: Atarrabiako Udala. **Erredakzio Kontseilua:** Pedro Gastearena, Guillermo Ezkieta, Richard García, Mercedes Sánchez, Ángel Larraya, Charo Fraguas, Pello Gurbindo, eta José Vicente Urabayen (koordinatzailea). **Argazkia:** Antonio Olza. **Itzulpena:** Kike Diez de Ulzurrun. **Errealizatzailea:** Heda Comunicacion. **Ale kopurua:** 4.400. **LG:** NA 1223-1996. **Doako banaketa** // **Edita:** Ayuntamiento de Villava. **Consejo de Redacción:** Pedro Gastearena, Guillermo Ezkieta, Richard García, Mercedes Sánchez, Ángel Larraya, Charo Fraguas, Pello Gurbindo y José Vicente Urabayen (coordinador). **Fotografía:** Antonio Olza. **Traducción a euskera:** Kike Diez de Ulzurrun. **Realiza:** Heda Comunicación. **Tirada:** 4.400 ejemplares. **D.L.:** NA 1223-1996. **Difusión gratuita**

Osoko bilkura arrunta
2014ko maiatzak 29

Udal jabetzako lokal bat Club Ciclista Villavés-i lagatzea. Zinegotzi guztiak bertaratu ziren, Richard García (UPN) eta Rosario Fraguas (EB) izan ezik. Udalbatzak Udalaren jabetzapeko lokal bat Club Ciclista Villavés-i 20 urterako lagatzea onetsi zuen aho batez. Etxabea Udaletxe plazan dago, Atarrabia pilotalekuaren atzealdean, eta klubak txirrindularitza sustatzeko eta eskola gisara erabiliko du.

Klausula partikularren plegua onestea, prozedura irekian lehiaketa bidez besterentzeko HAPOren UCC2-B unitatearen 5. lurzatia. Osoko bilkurak, aho batez, UCC2-B unitatearen 5. lurzatiaren besterengarritasuna deklaratu eta aipatu lurzatia lehiaketa bidez esleitzeko plegua onetsi zuen; halaber, espedientea legearen arabera bideratzea erabaki zuen.

Klausula partikularren plegua onestea, prozedura irekian jendaurreko enkantearen bidez besterentzeko HAPOren UCC2-B unitatearen 1. lurzatia. Osoko bilkurak, aho batez, UCC2-B unitatearen 1. lurzatiaren besterengarritasuna deklaratu eta aipatu lurzatia enkante bidez esleitzeko plegua onetsi zuen; halaber, espedientea legearen arabera bideratzea erabaki zuen.

Alkatetzaren mozioa, Hezkuntza Departamentuak ahalik eta lasterren exekutatu ditzan Amalur I eta Amalur II haur eskolen finantza konpromisoei erantzuteko aurreikusita dauden kontusailak. Osoko bilkurak aho batez erabakita, mozioa mahai gainean utzi zen. Mozioak Hezkuntza Departamentua premiatzea izan zuen helburu, Amalur I eta Amalur II haur eskolen finantza konpromisoei erantzuteko aurreikusitako kontusailak exekutatu zitzan.

Atarrabia Bairen Mozioa, Atarrabiako IKA euskaltegiari diru-laguntza berezia emateko. Udalbatzak mahai gainean utzi zuen Atarrabia Baik aurkeztutako mozioa, 11 boto izan baitziren mozioa mahai gainean uztearen alde (BILDU, UPN, NABAI 2011, PSN-PSOE eta Pello Gurbindo zinegotzi atxiki gabea) eta lau kontra (Atarrabia Bai).

Mozioa, Bardeetako tiro zelaia eraistearen alde. Osoko bilkurak mozioa onetsi zuen, 11 boto izan baitziren alde (Bildu, Atarrabia Bai, NABAI 2011 eta Pello Gurbindo zinegotzi atxiki gabea), 3 kontra (UPN) eta abstentzio 1 (PSN-PSOE). Honatx mozioaren edukia: Bardeetako Komunitateari eskatzea salatu dezala Defentsarekin egina duen egungo hitzarmena, Bardeetako tiro zelaia eraisteko eman beharreko urratsak ezartze aldera, eta ondoren, behar bezalako babes-figura ezar dadila aipatu lurraldea babeste aldera; halaber, bat egitea Bardeetako Poligonoaren aurkako Batzarrak deitutako XXVII. martxarekin; Pedro Morenés Defentsa Ministroaren hitzak arbuiatzea, hauxe erran baitzuen: Bardeetako tiro zelaian saio militarra egiazko suarekin egitea "gastu sozialen artean" dagoela; eta, azkenik, erabakia Defentsa Ministeriora, Bardeetako Komunitatera, Erriberako Udaletara, Poligonoaren aurkako Batzarrera eta komunikabideetara bidaltzea.

Osoko bilkura arrunta
2014ko ekainak 26

Berraztertzeko errekurtsoa, Ama Arrosariokoa kaleko 9ko oztopo arkitektonikoak kentzeko desjabetze espedientean, eta behin betiko onestea. Zinegotzi guztiak bertaratu ziren, Idoia Maya (BILDU) izan ezik. Udalbatzak berraztertzeko errekurtsoa onetsi zuen aho batez aipatu desjabetze-espedientean. Ama Arrosariokoa kaleko 9ko oztopo arkitektonikoak kentzeko espedientea, gainera, behin betiko onetsi zen.

Xehetasun-azterlana behin betiko onetsia, Errondoa karrikan igogailu bat paratzeko. Osoko bilkurak aho batez onetsi zuen xehetasun-azterlana, Errondoa karrikan igogailu bat paratzeko.

Gizarte Gaien Batzordearen proposamena, Caritas-i eta Elikagaien Bankuari diru-laguntzak emateko. Udalbatzak proposamena aho batez onetsi zuen; hau da, 6.000 euroko diru-laguntza ematea Caritas-i eta 3.000 eurokoa Elikagaien Bankuari, lankidetza-proiektuak diruz laguntzeko, kontusailaren kargura.

Proposamena, Hezkuntza Departamentuak 0-3 urteko haur eskolak premiaz finantzatu ditzan. Osoko bilkurak proposamena onetsi zuen, 12 boto izan baitziren alde eta 4 aurka (UPN). Beraz, Hezkuntza Departamentuari eskatu zitzaion premia osoz finantzatu ditzala 0 eta 3 urte arteko haur eskolak.

Atarrabia Bairen proposamena, Atarrabiako IKA euskaltegiari diru-laguntza berezia emateko. Udalbatzak proposamena onetsi zuen, 12 boto izan baitziren alde eta 4 aurka (UPN). Beraz, IKA euskaltegiari 6.000 euro eman zaizkio, euskara sustatzeko jarduerendako kontusailaren kargura.

Mozioa Telekomunikazioei buruzko Lege berriaren inguruan. Osoko bilkurak mozioa onetsi zuen, 12 boto izan baitziren alde eta 4 aurka (UPN). Honatx mozioaren edukia: Udalak Telekomunikazioei buruzko Lege Orokor berria errefusatzea, udalen eta autonomien autonomiaren aurka egiteagatik, eta proposamen bat helaraztea Gobernu zentralari, toki entitateek eta autonomiek parte har dezaten beren eskumenak ukitzen dituen erreforma orotan; Gobernu zentralari jakinaraztea, Telekomunikazioei buruzko Lege orok osasuna eta bizia hartu behar dituela kontuan etekin ekonomikoen gainetik; Gobernu zentrala premiatzea, telekomunikazioak era seguruan eta osasungarrian zabaltzea susta dezan eta legeak ukituriko eragile guztiei entzunda, hau da, autonomietako eta toki entitateetako gobernuei eta, bereziki, gizarte zibilari eta aditu independenteei; erabakia Gobernu zentralera, autonomikoetara, Kongresuko eta Autonomietako talde politikoetara helaraztea, bai eta FEMP erakundeko gobernu batzarrera ere.

Hipotekak Ukitutakoen Plataformaren mozioa. Udalbatzak aho batez onetsi zuen Hipotekak Ukitutakoen Plataformaren mozioa. Horrela, honako hau eskatu zitzaion Nafarroako Gobernuari; alokairuko etxebizitzen parke publiko bat molda dezala familia-unitateentzat edo bizikidetza-unitateentzat, larrialdietarako; noiz eta aipatu unitateak etxegabetu dituztenean, etxebizitza ordainetan eman behar izan dutenean edota antzeko negozio juridiko batek ukitzen dituenean, eta, era berean, alokairuko etxebizitza babestuak eskuratzeko behar adina diru-sarrera ez duten pertsonentzat. Halaber, nafar Gobernuari eskatu zitzaion lehenetsi dezala alokairuko etxebizitzarako inbertsio publikoa, erosketako etxebizitzaren aurrean; etxebizitza sozialeko parke publiko horren araudi-garapena egin dezala; eta erabakia Nafarroako Gobernuari helaraztea, bai eta komunikabideei ere, zabal dezaten.

BILDUren mozioa Joan Karlos I.a Borboikoaren abdikazioa dela-eta. Eguneko aztergai honetan, Sandra Rodríguezek (UPN) osoko bilkuratik alde egin zuen. Mozioak aldarrikapen hauek bildu zituen: batetik, haustura demokratikoa, eta, bestetik, Euskal Herriko herritarrek beren etorkizuna erabakitzeko eskubidea, eta, Espainiako Koroaren ezein ordezkariri inolako zilegitasunik ez aitortzea; era berean, alderdi, sindikatu eta herritarrei dei egin zitzaien erabakitzeko eskubidearen alde lan egitera. Dena den, BILDUK mozioa aurkeztu aurretik, Atarrabia Baik zuzenketa-eske bat aurkeztu zuen herritarrek erreferendum bidez monarkiaren eta errepublikaren artean aukeratu dezaten. Zuzenketa-eskea bozkatu eta onetsi zen, 10 boto izan baitzituen alde (BILDU, Atarrabia Bai, NABAI 2011 eta Pello Gurbindo zinegotzi atxiki gabea), 3 kontra (UPN) eta 2 abstentzio (PSN-PSOEren abstentzio tekniko 1 eta EBren abstentzioa). Mozioa ere bozkatu eta onetsi zen, 10 boto izan baitzituen alde (BILDU, Atarrabia Bai, NABAI 2011 eta Pello Gurbindo zinegotzi atxiki gabea), 3 kontra (UPN) eta 2 abstentzio (PSN-PSOEren abstentzio tekniko 1 eta EBren abstentzioa).

Mozioa, Atarrabiako auzokide Aingeru Zudaireri elkartasuna agertzeko. Aingeru Zudaireri gomazko pilotakada batez egin zioten eraso greba orokorreko egun batean; bada, hari elkartasuna agertzeko mozioa puntuz puntu bozkatu zen. Lehenbiziko puntua bitan bereizi zen: lehenean, Udalak berriz ere elkartasuna agertu zion Aingeru Zudaire auzokideari eta aho batez onetsi zen. Bigarrenean gomazko pilotak erabiltzea arbuiatu zen, 2013ko urtarrilaren 31n onetsitako mozioan jaso bezalaxe; aldeko 12 botorekin eta 3 abstentziorekin onetsi zen. Hirugarren puntuan, erantzukizunak exijitu ziren bide judizialetik, 2012ko irailaren 26ko greba orokorrean gertaturikoen gainean, Aingeruk sufritutakoak bezalako kalteak zigortu gabe gera ez daitezen; aldeko 12 botorekin eta 3 abstentziorekin (UPN) onetsi zen. Laugarren puntuan proposatu zen erabakia Nafarroako Gobernura, Foru Parlamentura, Gobernu Ordezkaritzara eta Arartekoari helaraztea, erakunde bakoitzak bere eskumenen arabera jardun dezan; aldeko 12 botorekin eta 3 abstentziorekin (UPN) onetsi zen.

Osoko bilkura arrunta
2014ko uztailak 31

2013ko kontu-espedientea. Zinegotzi guztiak bertaratu ziren, Mikel Oteiza (BILDU) izan ezik. Udalbatzak 2013ko kontu-espedientea onetsi zuen; 12 boto izan ziren alde eta 4 abstentzio (UPN).

Aurrekontuan 6. aldaketa egiteko espedientea; kreditu-gehikuntza, Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin batera finantzatutako obrak egiteko. Aurrekontuan kreditu-gehikuntzaren bidez 6. aldaketa egiteko espedientea onetsi zuen aho batez Udalbatzak. Guztira, 59.900 euro izanen dira diruzaintzako gerakinaren kargura, Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin batera finantzatutako obrak egiteko.

Aurrekontuan 7., 8. eta 9. aldaketak egiteko espedientea, finantzen aldetik iraunkorrak diren hainbat obra egiteko. Osoko bilkurak aurrekontuan 7., 8. eta 9. aldaketak egiteko espedientea onetsi zuen aho batez. Guztira, 33.716,54 euro izanen dira hainbat obra egiteko, diruzaintzako gerakinaren eta NELS SAREAREN diru-laguntzaren kargura.

Aurrekontuan 10. aldaketa egiteko espedientea Maderas del Pirineo-ri ordaintzeko. Udalbatzak aurrekontuan 10. aldaketa egiteko espedientea onetsi zuen aho batez, Maderas del Pirineo-ri 6.447,27 euro ordaintzeko, igerilekuak konpontzearen kargura.

Aldaketa prezio publikoei buruzko ordenantzan, udal jabetzapeko hesiak eta altzariak lagatzea arautzeko. Osoko bilkurak prezio publikoei buruzko ordenantzan aldaketa egitea onetsi zuen aho batez, udal jabetzapeko hesiak eta altzariak lagatzea arautzeko.

EBren mozioa Israelez eta Gazako egoeraz. UPNko zinegotzi Richard Garcíak zuzenketa-eske bat aurkeztu zion azken puntuari, erabakia ere Espainiako Gobernuari helarazteko. Zuzenketa-eskea aho batez onetsi zen. Mozioa puntuz puntu eztabaidatu eta bozkatu zen. Lehen puntua aho batez onetsi zen; Espainiako Gobernuari eskatzea premia zezala Israelgo Gobernua bonbardaketak eta erasoak bertan behera uztera. Bigarrena ere aho batez onetsi zen: Espainiako Gobernuari eskatzea premia zezala Israelgo Gobernua bukaera ematera Gazako zerrendaren aurkako blokeoari eta setioari; era berean, eskaera Espainiako Gobernuari lurraldearen inbasioak eta legez kontrako okupazioa salatzeko eta nazioarteko aginduak betetzeko. Hirugarren puntuaren bidez Espainiako Gobernuari eskatu zitzaion bertan behera utz zezala Europar Batasunaren eta Israelen arteko egungo Elkarte Akordioa; 12 botorekin eta 4 abstentziorekin (UPN) onetsi zen. Honatx laugarren puntua: Espainiako Gobernua premiatzea konpromisoa har dezan nazioarteko organismo guztietan Ekialde Hurbilean bakea lortzeko eta, era berean, behar adina presio-neurri babestea Israel elkarrizketarako jarreretara bideratzeko; aho batez onetsi zen. Azken puntua ere aho batez onetsi zen, hots, erabakia Israelgo enbaxadoreari, Palestinak Espainian duen Misio Diplomatikoko buruari, Espainiako Gobernuari eta komunikabideei bidaltzea.

Atarrabia Bairen eta EBren mozioa, udaleko kirol instalazioak kudeatzeko azterlan bat egiteko. Mozioa mahai gainean geratu zen, alkate Pedro José Gastearenaren kalitatezko botoak eraginik, bozketan berdinketa gertatu baitzen. Mozioak, zehazki, hauxe eskatu zuen: azterlan bat egitea udaleko kirol instalazioen kudeaketaren bideragarritasun ekonomikoari buruz.

Udalaren osoko bilkuren aktak Udalaren webgunean ikusgai daude: www.villava.es // Las actas de los plenos municipales se pueden consult

Pleno ordinario
29 de mayo de 2014

Cesión de un local de propiedad municipal al Club Ciclista Villavés. En una sesión plenaria a la que asistieron todos los concejales excepto Richard García (UPN) y Rosario Fraguas (IU-EB) acordó por unanimidad ceder al Club Ciclista Villavés el uso del local propiedad del Ayuntamiento situado en la plaza COonsistorial, trasera del frontón Atarrabia, para que se ejercite la actividad de promoción y escuela de ciclismo por un plazo de 20 años.

Aprobación, en su caso, del pliego de cláusulas particulares para la enajenación mediante procedimiento abierto, concurso, de la parcela 5 de la UCC2-B del PGOU. El Pleno aprobó por unanimidad declarar la alienabilidad de la parcela 5 de la UCC2-B y aprobar el pliego para la adjudicación mediante concurso de dicha parcela, y dar al expediente el curso legalmente previsto.

Acuerdo para aprobar, en su caso, el pliego de cláusulas particulares para la enajenación mediante procedimiento abierto, subasta pública de la parcela 1 de la unidad UCC2-B del PGOU. La Corporación municipal acordó por unanimidad declarar la alienabilidad de la parcela 1 de la UCC2-B y aprobar el pliego para la adjudicación mediante subasta de dicha parcela, y dar al expediente el curso legalmente previsto.

Moción de Alcaldía para instar al Departamento de Educación para que ejecute las partidas económicas previstas para atender los compromisos financieros de las escuelas infantiles Amalur I y Amalur II. El Pleno acordó por unanimidad dejar encima de la mesa la moción para instar al Departamento de Educación para que ejecute las partidas económicas correspondientes previstas para atender los compromisos de financiación de las escuelas infantiles Amalur I y Amalur II.

Moción de Atarrabia Bai para la concesión de una ayuda económica extraordinaria al euskaltegi IKA de Villava. La Corporación municipal aprobó por 11 votos a favor de BILDU, UPN, NABAI 2011, PSN-PSOE y el concejal no adscrito Pello Gurbindo y 4 votos en contra de Atarrabia Bai dejar la moción presentada por Atarrabia Bai encima de la mesa.

Moción a favor del desmantelamiento del polígono de tiro de Las Bardenas. El Pleno aprobó por 11 votos a favor de Bildu, Atarrabia Bai, NABAI 2011 y el concejal no adscrito Pello Gurbindo, 3 votos en contra de UPN y 1 abstención del PSN-PSOE solicitar a la Comunidad de Bardenas la denuncia del actual convenio con Defensa de cara a establecer los pasos necesarios para el desmantelamiento del polígono de tiro de la Bardenas, con el posterior establecimiento de la figura de protección adecuada para el territorio mencionado, así como mostrar el apoyo a la XXVII Marcha convocada por la Asamblea Antipolígono de Las Bardenas; reprobar las palabras del Ministro de Defensa, Pedro Morenés, en las que afirmaba que las maniobras militares con fuego real en el polígono de tiro de Las Bardenas son "otro gasto social"; y enviar este acuerdo al Ministro de Defensa, a la Comunidad de Bardenas, a los ayuntamientos de La Ribera, a la Asamblea Antipolígono y a los medios de comunicación.

Pleno ordinario
26 de junio

Recurso de reposición en el expediente de expropiación para supresión de barreras arquitectónicas en la calle Rosario 9 y aprobación definitiva del mismo, en su caso. En una sesión plenaria a la que asistieron todos los concejales excepto Idoia Maya (BILDU), la Corporación municipal aprobó por unanimidad el recurso de reposición en el expediente de expropiación para supresión de barreras arquitectónicas en la calle Rosario 9 y su aprobación definitiva.

Aprobación definitiva de estudio de detalle para la instalación de un ascensor en la calle Errondoa. El Pleno aprobó por unanimidad el estudio de detalle para la instalación de un ascensor en la calle Errondoa.

Propuesta de la Comisión de Asuntos Sociales para la concesión de subvenciones a Cáritas y al Banco de Alimentos. La Corporación municipal aprobó por unanimidad conceder una partida presupuestaria de 6.000 euros para Cáritas y otra de 3.000 euros para el Banco de Alimentos a cargo de la partida destinada a la subvención de proyectos de cooperación.

Propuesta para que el Departamento de Educación atienda urgentemente la financiación de las escuelas infantiles de 0-3 años. El Pleno aprobó por 12 votos a favor y 4 en contra de UPN la propuesta para que el Departamento de Educación atienda urgentemente la financiación de las escuelas infantiles de 0 a 3 años.

Propuesta de Atarrabia Bai para la concesión de una ayuda económica extraordinaria al euskaltegi IKA de Villava. La Corporación municipal aprobó por 12 votos a favor y 4 en contra de UPN conceder 6.000 euros al euskaltegi IKA con cargo a la partida destinada a las actividades de fomento del euskera.

Moción de la nueva Ley Foral de Telecomunicaciones. El Pleno aprobó por 12 votos a favor y 4 en contra de UPN una moción para que el Ayuntamiento muestre su rechazo al Proyecto de Ley General de Telecomunicaciones por atentar contra la autonomía municipal y autonómica y elevar al Gobierno Central la propuesta de que cualquier reforma que afecte a las entidades locales y autonómicas deberá contar con su participación; para comunicar al Gobierno Central que cualquier reforma de la Ley de Telecomunicaciones debe tener en cuenta la salud y la vida por encima de los beneficios económicos; para instar al Gobierno Central a que promueva un despliegue de las telecomunicaciones seguro y saludable escuchando a todos los actores afectados por la ley:a los gobiernos autonómicos y locales y, especialmente, a la sociedad civil, y a los expertos independientes; y dar traslado de este acuerdo a los Gobiernos Central, Autonómicos, a los grupos políticos del Congreso y de las Cortes Regionales, y a la Junta de Gobierno de la FEMP.

Moción de la Plataforma de Afectados por la Hipoteca. El pleno aprobó por unanimidad la moción de la Plataforma de Afectados por la Hipoteca para solicitar al Gobierno de Navarra que active un parque público de viviendas de alquiler con destino a unidades familiares o de convivencia con emergencia habitacional fruto de un desahucio, dación en pago o negocio jurídico similar, así como para aquellas personas cuyos ingresos no les posibilita el acceso a la vivienda de alquiler protegido, y que priorice la inversión pública con destino a la vivienda de alquiler frente a la de compra; que efectúe el desarrollo normativo de este parque público de vivienda social; y que se notifique este acuerdo al Gobierno de Navarra y a los medios de comunicación para su difusión.

Moción de BILDU ante la abdicación de Juan Carlos I de Borbón. En este punto del orden del día, Sandra Rodríguez (UPN) abandonó la sesión plenaria. Tras la presentación de la moción, en la que se reclamaba una ruptura democrática y la reivindicación del derecho de la ciudadanía de Euskal Herria a decidir su futuro y a no reconocer legitimidad alguna a ningún representante de la Corona española, así como hacer un llamamiento a partidos, sindicatos y ciudadanía para trabajar en el derecho a decidir, Atarrabia Bai presentó una enmienda, que proponía la celebración de un referéndum para que la ciudadanía pudiera elegir entre monarquía y república. Sometida a votación la enmienda, fue aprobada por 10 votos a favor de BILDU, Atarrabia Bai, NABAI 2011 y el concejal no adscrito Pello Gurbindo, 3 en contra de UPN y 2 abstenciones, 1 abstención técnica de PSN-PSOE y 1 abstención de IU-EB. Sometida a votación la moción, fue aprobada por 10 votos a favor de BILDU, Atarrabia Bai, NABAI 2011 y el concejal no adscrito Pello Gurbindo, 3 en contra de UPN y 2 abstenciones, 1 abstención técnica de PSN-PSOE y 1 abstención de IU-EB.

Moción de solidaridad hacia el vecino de Villava Aingeru Zudaire. La moción de solidaridad con Aingeru Zudaire, que sufrió una agresión con una pelota de goma durante una jornada de huelga general se votó por puntos. El primer punto se separó en dos puntos. El primero, en el que se reiteraba la solidaridad del Ayuntamiento con el vecino Aingeru Zudaire, fue aprobado por unanimidad. El segundo, en el que se mostraba el rechazo al uso de las pelotas de goma tal y como se recogió en la moción aprobada el 31 de enero de 2013, fue aprobado por 12 votos a favor y 3 abstenciones. El tercer punto, en el que se exigían responsabilidades, vía judicial, de lo sucedido en la jornada de huelga general del 26 de septiembre de 2012 con el fin de evitar que daños sufridos como el de Aingeru queden impunes, fue aprobado por 12 votos a favor y 3 abstenciones de UPN. El cuarto punto, en el que se proponía dar traslado de este acuerdo al Gobierno de Navarra, al Parlamento Foral, a la Delegación del Gobierno y al Defensor del Pueblo para que cada institución actúe en consecuencia en el ámbito de sus competencias, fue aprobado por 12 votos a favor y 3 abstenciones de UPN.

Pleno ordinario
31 de julio de 2014

Expediente de cuentas del ejercicio 2013. En una sesión plenaria a la que asistió toda la Corporación municipal excepto Mikel Oteiza (BILDU), el Pleno aprobó por 12 votos a favor y 4 abstenciones de UPN el expediente de cuentas de 2013.

Expediente de modificación presupuestaria nº 6, de suplemento de crédito para la realización de obras cofinanciadas por el Servicio Navarro de Empleo. La Corporación municipal aprobó por unanimidad el expediente de modificación presupuestaria nº 6, de suplemento de crédito de 59.900 euros a cargo del remanente de tesorería, para la realización de obras cofinanciadas por el Servicio Navarro de Empleo.

Expediente de modificaciones presupuestarias nº 7, 8 y 9 para la realización de varias obras financieramente sostenibles. El Pleno aprobó por unanimidad el expediente de las modificaciones presupuestarias nº 7, 8 y 9 para la realización de varias obras por importe de 33.716,54 euros con cargo al remanente de tesorería y a la subvención de la RED NELS.

Expediente de modificación presupuestaria nº 10 para pago a Maderas del Pirineo. La Corporación municipal aprobó por unanimidad el expediente de modificación presupuestaria nº 10 para el pago a Maderas del Pirineo de 6.447,27 euros con cargo a las reparaciones de las piscinas.

Expediente de modificación presupuestaria nº 10 para pago a Maderas del Pirineo. La Corporación municipal aprobó por unanimidad el expediente de modificación presupuestaria nº 10 para el pago a Maderas del Pirineo de 6.447,27 euros con cargo a las reparaciones de las piscinas.

Modificación de ordenanza de precios públicos para regular cesión de vallado y mobiliario de propiedad municipal. El Pleno aprobó por unanimidad la modificación de la ordenanza de precios públicos para regular cesión de vallado y mobiliario de propiedad municipal.

Moción de IU-EB sobre Israel y situación de Gaza. El concejal de UPN, Richard García, presentó una enmienda para incluir, en el último punto de la moción, al Gobierno español como destinatario del acuerdo alcanzado. La enmienda fue aprobada por unanimidad. Sometida a votación la moción, fue tratada por puntos. El primer punto, en el que se solicitaba al Gobierno español que instara al Ejecutivo israelí al cese inmediato de los bombardeos y de los ataques, fue aprobado por unanimidad. El segundo punto, en el que se solicitaba al Gobierno español a que instara al Ejecutivo israelí a que pusiera fin al asedio y al bloqueo de la franja de Gaza y a que denunciara las invasiones y ocupación ilegal del territorio y cumpliera con los mandatos internacionales, fue aprobado por unanimidad. El tercer punto, en el que se solicitaba al Gobierno español la suspensión del Acuerdo de Asociación vigente entre la Unión Europea y el país hebreo, fue aprobado por 12 votos a favor y 4 en contra de UPN. El cuarto punto, en el que se instaba al Gobierno español a expresar su posicionamiento comprometido en todos los organismos internacionales para la consecución de la paz en Oriente Próximo además de apoyar cuantas medidas de presión a Israel para conducirla hacia posiciones de diálogo, fue aprobado por unanimidad. El último punto, en el que se proponía enviar este acuerdo al embajador de Israel, al jefe palestino de la Misión Diplomática en España, al Gobierno español y a los medios de comunicación, fue aprobado por unanimidad.

Moción de Atarrabia Bai e IU-EB sobre realización de estudio de gestión de instalaciones deportivas municipales. La moción para solicitar la elaboración de un estudio sobre la viabilidad económica de la gestión de las instalaciones deportivas municipales quedó encima de la mesa con el voto de calidad del alcalde, Pedro José Gastearena, tras producirse un empate en la votación.

tar en la página web del Ayuntamiento

Memoria Historikoari buruzko jardunaldiak

Irailaren 16tik urriaren 17ra, Memoria Historikoari buruzko jardunaldiak eginen dira Atarrabian. Zehazki, 3 erakusketa eta 3 hitzaldi eginen dira eta, horrekin batera, Miguel Labat Velasco auzokideari omenaldia eginen zaio. Udaletxeko atondoan plaka bat paratuko da, bai haren oroitzapenetan bai 1936ko kolpe militarraren ondorioz eraildako atarrabiar guztien gorazarretan.

Jornadas sobre Memoria Histórica

Entre el 16 de septiembre al 17 de octubre, Villava va a acoger unas jornadas sobre Memoria Histórica en las que se va a abordar el tema a través de 3 exposiciones, 3 charlas y un homenaje al vecino Miguel Labat Velasco, en cuya memoria, y en la de todos los/las vecinos/as asesinados/as tras el golpe militar de 1936, se colocará una placa en el zagúan del Ayuntamiento.



Ezker-eskuin, hilaren 16an zabalduko diren erakusketen irudiak. Behean, hilaren 30ekoak. / A izquierda y derecha, imágenes de las exposiciones que se inican el día 16. Abajo, de la del día 30.

EGITARAUA

Irailak 16, asteartea
19:30: Hasiera ekitaldia eta erakusketen aurkezpena: "Esklabotza frankismoan: errepideak eta fortifikazioak Mendebaldeko Pirinioan" eta "Memoriaren Gotorlekua. Memoria Historikoa Interpretatzeko Gunea", Fernando Mendiolaren eta Ioar Cabodevillaren eskutik. Kultur Etxeko erakusketa gela.
Lehen erakusketan ageri dira presoen batailoiek Pirinioetan egindako lanak. 16 paneletan azalduta dago nola sortu zen bortxazko lanaren sare hori eta nola eraiki ziren errepideak eta fortifikazioak.
Bigarren erakusketan Memoria Historiko Interpretatzeko Gune baten proiektua dago ikusgai, Ezkaba mendiko gailurrerako pentsatua, San Kristobal gotorlekuan. Honatx ideia: balio al dezake eraikin batek lurpean ezkutatzen duena azalera ateratzeko? Eman al lezake inolako argirik Gerra Zibilean, han bertan, bizi izandakoaz? Iritsi al daiteke izatera gertatukoaren memoria?
Bi erakusketak irailaren 16tik 26ra egonen dira ikusgai.

Irailak 25, osteguna
19:30: Hitzaldia. "Caracterísitcas y aportaciones del Fondo Documental de la Memoria Histórica en Navarra". Hizlariak: Emilio Majuelo, Gotzon Garmendia eta Juan Carlos García. Kultur Etxea, 13. aretoa.

Irailak 28, igandea
12:00: Miguel Labat Velascoren omenezko ekitaldia eta plaka bat paratzea 1936ko kolpe militarraren ondorioz eraildako atarrabiar guztien gorazarretan. Udaletxeko atondoan.

Irailak 30, asteartea
19:30: "Isildutakoa lurpetik ateratzen. Egia, justizia eta erreparazioa" erakusketaren inaugurazioa eta aurkezpena. Kultur Etxeko erakusketa gela.
Argazki sorta ederrean bildua dago Nafarroako Memoria Historikoaren Elkartearen 12 urteko ibilbidea.
Gerra Zibilean Nafarroan eraildako 2.400 pertsonaren istorioak argira ateratzeko ahaleginean dabil; istorio isilduak errepresalien beldur. Asmoa baita, hura gertatu zenetik urte sail luzea igaro den honetan, eraildakoei eta familiakoei duintasuna itzultzea.
Urriaren 17ra arte ikusgai.

Urriak 2, osteguna
19:30: Hitzaldia. "La represión: el destino de la Villava "roja". Hizlaria: Peio Monteano. Kultur Etxea, 13. aretoa

Urriak 16, osteguna
19:30: Hitzaldia. "Desenterrando la historia robada". Hizlariak: Paco Etxeberria eta Josefina Lamberto. Kultur Etxea, 13. aretoa.

Jardunaldi antolatzaileak: 36ko Fusilatuen Senideen Elkartea, Memoria Historikoaren autobusa eta Atarrabiako Udala.

PROGRAMA

16 de septiembre, martes
19:30: Inauguración y presentación de las exposiciones "Esclavitud bajo el franquismo: carreteras y fortificaciones en el Pirineo Occidental" y "Fuerte de la Memoria. Espacio de Interpretación de la Memoria Histórica", a cargo de Fernando Mendiola y Ioar Cabodevilla. Sala de exposiciones de la Casa de Cultura.
La primera exposición muestra los trabajos realizados en el Pirineo por los batallones de prisioneros. En 16 paneles se explica cómo se formó esta red de trabajo forzado y cómo se construyeron carreteras y fortificaciones.
La segunda exposición presenta un proyecto de Espacio de Interpretación de la Memoria Histórica en la cima del monte
Ezkaba, en el Fuerte de San Cristóbal. La idea es, ¿puede servir un edificio para desenterrar lo que se esconde bajo su suelo? ¿Podría dar algo de luz sobre lo vivido en el lugar durante la Guerra Civil? ¿puede llegar a ser memoria de lo sucedido?
Ambas muestras pueden visitarse del 16 al 26 de septiembre.

25 de septiembre, jueves
19:30: Charla. "Características y aportaciones del Fondo Documental de la Memoria Histórica en Navarra", a cargo de Emilio Majuelo, Gotzon Garmendia y Juan Carlos García. Casa de Cultura, sala 13.

28 de septiembre, domingo
12:00: Homenaje a Miguel Labat Velasco y colocación de una placa en recuerdo de los vecinos/as asesinados/as tras el golpe militar de 1936. En el zagúan del Ayuntamiento.

30 de septiembre, martes
19:30: Inauguración y presentación de la exposición "Desenterrando el silencio. Verdad, justicia y reparación". Sala de exposiciones de la Casa de Cultura.
Recorrido fotográfico que recoge los 12 años de existencia de la Asociación de la Memoria Histórica de Navarra en su intento de rescatar las historias silenciadas por miedo a represalias de 2.400 personas asesinadas en Navarra durante la Guerra Civil para, muchos años después, devolverles la dignidad, a ellos y a sus familias.
Esta muestra se podrá visitar hasta el 17 de octubre.

2 de octubre, jueves
19:30: Charla. "La represión: el destino de la Villava "roja" , a cargo de Peio Monteano. Casa de Cultura, sala 13.

16 de octubre, jueves
19:30: Charla. "Desenterrando la historia robada", a cargo de Paco Etxeberria y Josefina Lamberto. Casa de Cultura, sala 13.

Estas jornadas están organizadas conjuntamente por la Asociación de Familiares de Fusilados del 36, el autobús de la Memoria Histórica y el Ayuntamiento de Villava.

atarrabia
ASESORÍA FISCAL Y CONTABLE S.L.
Asesoramiento y gestión para Pymes, autónomos y particulares
C/ Agustín García Bordel, 22 • Entreplanta A
31610 **Villava** (Navarra)
Tel.: 948 33 07 01 • **Fax:** 948 36 10 16
E-mail.: administracion@asesoria-atarrabia.com
www.asesoria-atarrabia.com

TALLERES EZKABA
Automóvil · Furgonetas · Autocaravanas
Mecánica · Electricidad · Diagnosis
tallaresezkaba@gmail.com
www.talleresezkaba.com
Pol. Ind. Mugazuri, 9 - calle C
Tel. 948 488 418
31600 Burlada-Burlata

■ 2013ko kontuak 223.241,52 euroko gerakin positiboarekin itxi dira

Udalak 2013ko kontuak itxi ditu eta 223.241,52 euroko gerakin positiboa izan da diruzaintzan. 2007az geroztik, lehen aldiz, gerakin positibo bat izan da gastu orokorretarako (149.910,77 euro); izan ere, itxitako urtealdien zorra likidatzea lortu baita Kultur Etxea eraiki zuen enpresarekin (750.000 euro), horretarako berariaz 2013ko bukaeran hitzartu zen maileguaren ondotik. Saldo positibo horri esker, 2014an hainbat inbertsio eginen dira, betiere Aurrekontuak Egonkortzeko Legeak finantzen iraunkortasunerako ezarritako baldintzak betetzen badira.

Las cuentas de 2013 se cierran con un remanente positivo de 223.241,52 euros

El Ayuntamiento ha cerrado las cuentas de 2013 con un remanente de tesorería de 223.241,52 euros. Por primera vez desde 2007, ha presentado un remanente positivo para gastos generales (149.910,77 euros), al conseguir liquidar la deuda de ejercicios cerrados con la empresa constructora de la Casa de Cultura (750.000 euros) tras el préstamo concertado para ello a finales de 2013. Este saldo positivo permitirá realizar varias inversiones en 2014, siempre que cumplan los requisitos de sostenibilidad financiera que exige la Ley de Estabilidad Presupuestaria. ■

■ Etxebizitzak karrika Nagusian

Hirugarren aldiz eman gabe gelditu dira N 1 eta N 5 lurzatiak esleitzeko enkantea eta lehiaketa, ez baita lizitatzailerik batere aurkeztu. Asmoa da aipatu lurzatietan babes ofizialeko 10 etxebizitza eta 10 etxebizitza libre eraikitzea, hau da, antzinako Kultur Etxeak eta Udal Zinemak hartzen zituzten orubeetan. Hala ere, eskari partikular bat aurkeztu da Udal Erregistroan, Udalak azterlan bat egiteko baimena eman dezan; horren bidez jakin nahi dute Atarrabian eskaririk ote dagoen kooperatiba bat osatzeko, udal jabetzapeko orubeak zuzenean eskuratze aldera.

Viviendas en la calle Mayor

La subasta y el concurso convocados para la adjudicación de las parcelas Nº 1 y Nº 5 que posibilitarian la construcción de 10 viviendas de protección oficial y 10 viviendas libres en los solares que ocupan la antigua Casa de Cultura y Cine Municipal han quedado desiertos por tercera vez al no haberse presentado ningún licitador.
No obstante, se ha presentado en el Registro Municipal una petición particular de autorización para la realización de un estudio de cara a conocer la demanda en Villava para la constitución de una cooperativa que pudiera acceder de forma directa a la adquisición de los solares de propiedad municipal. ■

■ Nafarroako Gobernuak ez du diruz lagunduko beste herrietako ikasle ez-garraiatuek eragiten duten gastua

Epaiak horixe erabaki baitu eta ez dago inolako errekurtsorik tartekatzerik. Nafarroako Auzitegi Goreneko administrazioarekiko auzien salak emandako epaia da.
Beste herri batzuetako ikasle kopuru nabarmen bat etortzen da Atarrabiako ikastetxe publikoetara ikastera, eta Hezkuntza Departamentuak ez ditu diruz laguntzen ikasle horiek eragiten dituzten gastuak eta ez du inolako laguntzarik ematen. Hori dela eta, Atarrabiak errekurtsoa jarri zuen.
Azken finean, epaiak esan du Atarrabiako Udalak bere aurrekontuen kargura ordaintzen jarraitu behar duela Lorenzo Goicoa ikastetxe publikoan 109 ikaslek eta Atargi ikastetxe publikoan 13 ikaslek 2013-14 ikasturtean eragiten dituzten gastu guztiak (2013-14 ikasturteko datuak dira).
Gastu handia dela ikusita eta, epaiaren ondotik, alkatea Hezkuntza kontseilariarekin bildu zen eta neurriak hartzeko eskatu zion, Atarrabiako herritarrek ordaindu behar ez izateko haiei ez dagokien gastua, beste herri batzuetako auzokideek eragindako gastua baita. Iribas kontseilari jaunak, ordea, eskaera horri entzungor egin zion.

El Gobierno de Navarra no subvencionará el gasto por el alumnado no transportado de otras localidades

Así lo determina la sentencia, contra la que no cabe recurso alguno, dictada por la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Navarra.
EL Ayuntamiento planteó este recurso tras comprobar que existía un importante número de alumn@s que acuden a los colegios públicos de Villava procedentes de otras localidades y por cuyos gastos no se percibe subvención ni ayuda alguna por parte del Departamento de Educación.
En definitiva, la Sentencia declara que el Ayuntamiento de Villava debe seguir asumiendo con cargo a sus presupuestos la totalidad de los gastos que generan 109 alumnos en el Colegio Público Lorenzo Goicoa y en 13 del Colegio Público Atargi en el curso 2013-14.
Dado el importante gasto que ello supone, y tras esta sentencia, el alcalde mantuvo una reunión con el Consejero de Educación para pedirle que se adopten medidas para evitar que se grave a la ciudadanía der Villava Atarrabia por un gasto que no le corresponde, ya que está generado por vecin@s de otras localidades. El consejero Sr. Iribas hizo oídos sordos a esta petición. ■

Udaltzaingoa > Policía Municipal

■ Aisiarako etxabeen egoera, aztergai

Auzokideen eta aisia-etxabeen erabiltzaileen arteko bizikidetza errazteko asmoz, Udalak azterlan bat eginen du, ordenantzan ezarritako funtzionamendu-baldintzak etxabeek betetzen ote dituzten ikusteko. Hala Udaltzaingoa nola Gazteria alorra harremanetan sartuko dira erabiltzaileekin eta auzokide ukituekin.

A estudio la situación de los locales de ocio

Con el objetivo de facilitar la convivencia entre vecinos y usuarios de los locales de ocio, el Ayuntamiento va a realizar un estudio para comprobar si los locales cumplen los requisitos de funcionamiento establecidos en la ordenanza. Tanto la Policía Municipal como el área de Juventud van a mantener contactos con los usuarios de los locales y con los vecinos afectados. ■

■ Gomendioak ikastetxeetako sarbideetarako

Lehen gomendioa da ibilbidea oinez egitea, eta haurrekin batera doazen gurasoak saia daitezela egunero ibilbide berbera egiten; horrela, inoiz haurrak berak bakarrik joan behar badu, bidea ezagutuko du. Bigarren gomendioa da ibilbiderik seguruena aukeratzea, hau da, trafikorik gutxiena eta oinezkoendako pasabiderik gehien duen huraxe; zehazki, onena da, ahal bada, udaltzainek zaintzen dituzten pasabideak erabiltzea. Hirugarrena ikastetxera garaiz joatea da, presak eragiten dituen arriskuak saihesteko. Era berean, Udaltzaingoak gomendatzen du ez dadila ibilgailua erabili haurrak ikastetxera eramateko, eta, beharrezkoa bada, autoa inguruetan uztea eta oinez joatea, autopilaketak eta zirkulazio-dentsitate handi-handia saihesteko, hori arriskutsua baita hala ikasleentzat nola haiekin doazenentzat. Bestalde, eskolara oinez doazen Atargi eta Lorenzo Goicoa ikastetxeetako ikasleek Fruta-arbolen Bideko atetik sartu beharko lukete; izan ere, autobusak Fermin Tirapu kaletik sartzen dira ikastetxeetako aparkalekuetan, eta sarrera hori oso arriskutsua da oinez doazenentzat.

Recomendaciones para los accesos a los colegios

La primera recomendación es que el trayecto se realice a pie y que los padres y madres que acompañen a menores procuren realizar un recorrido fijo todos los días para que, en caso de que algún día el niño o niña tenga que acudir solo, conozca el camino. La segunda recomendación es que se elija el trayecto más seguro, es decir, aquel que tenga menos tráfico y con más pasos de peatones, preferentemente los que dispongan de algún agente de policía. La tercera es que se acuda al centro escolar con tiempo para evitar situaciones de peligro debido a las prisas. Asimismo, desde la Policía municipal se recomienda no utilizar el vehículo para llevar a los niños y niñas a los colegios y, en caso de que sea necesario, aparcar el coche en los alrededores y acudir a pie para evitar atascos y densidad de tráfico muy alta que ponga en peligro la integridad de los escolares y sus acompañantes.
Por otro lado, el alumnado de los centros Atargi y Lorenzo Goicoa que acude a pie debería acceder por la puerta del Camino de los Frutales, ya que la entrada de los autobuses al aparcamiento de los colegios por la calle Fermín Tirapu es más peligrosa. ■

FORMACIÓN INTEGRAL
Andreszar, 30 - VILLAVA-ATARRABIA
Tel. 948 067 707 • 616 296 451
www.mmformacionintegral.com

CLASES DE APOYO - LAGUNTZA ESKOLAK
Primaria - ESO - Bachiller - FP (castellano/euskera)
Clases en la academia y a domicilio
IDIOMAS- HIZKUNTZAK: Euskera, Inglés, Francés
OTROS SERVICIOS - BESTE ZERBITZU BATZUK:
Preparación de pruebas específicas (selectividad, prueba de acceso FP)
"Cursos a la carta" ¡Dinos qué quieres aprender!
Necesidades educativas especiales
Asesoramiento pedagógico a padres y madres
Talleres

2014ko testu eta marrazki lehiaketak

Prebentzio gaiei buruzko narrazio eta kartel lehiaketak dira DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzat, Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoak antolaturik, betiere Osasun Etxearekin, Osasun Publikoaren Institutuarekin eta Drogamendekotasunari buruzko Foru Planarekin elkarlanean. Honatx aurtengo irabazleak: ilustrazio lehiaketan, lehena Patricia Imaz Martínez izan da (Paz de Ziganda), eta bigarrenak Yanya Nikolaeva Andreeva eta Irati Urrestarazu Fontan (Pedro de Atarrabia); testu lehiaketan, berriz, Nerea Larraya Gimeno euskarazko modalitatean (Pedro de Atarrabia) eta María Ahechu Inda, gaztelaniazkoan (Pedro de Atarrabia). Horrez gain eta banako diplomez landara, honako ikasgela hauek talde saria eskuratu zuten: P. Atarrabia institutuko 1. A; P. Atarrabia institutuko 1. E; P. Atarrabia institutuko 2. B eta Paz Zigandako 2. A.

Concursos 2014 de textos y dibujos

En la edición de este año de los concursos de narraciones y carteles sobre temas de prevención para alumnado de 1º y 2º de ESO organizados por El Servicio Social de Base con la colaboración del Centro de Salud, el Instituto de Salud Pública y el Plan Foral de Drogodependencias, los/as ganadores han sido: en el certamen de ilustraciones, Patricia Imaz Martínez (Paz de Ziganda), y en segundo lugar Yanya Nikolaeva Andreeva e Irati Urrestarazu Fontan 8Pedro de Atarrabia); y en el de textos, Nerea Larraya Gimeno en la modalidad de euskera (Pedro de Atarrabia) y María Ahechu Inda en la modalidad de castellano (Pedro de Atarrabia). Además de ellos y de los diplomas individuales, tuvieron premio colectivo las siguientes aulas: Instituto P Atarrabia 1º A, Instituto P Atarrabia 1º E. Instituto P. Atarrabia 2º B y Paz Ziganda 2º A. ■

■ **HIRI UDALEKUAK.** Beste behin ere, aurtengo udan, herriko haur askok ederki gozatu dituzte hiriko udalekuak. Udal zerbitzu horrek bi hamabostaldi eskaini ditu aurten gaztelaniaz eta beste bi euskaraz. Irudietan, euskarazko talde bat (goian) eta bestea gaztelaniazkoa (behean). **COLONIAS URBANAS.** Un verano más, niños y niñas de Villava han disfrutado de las actividades organizadas por las Colonias Urbanas, un servicio municipal que este año ha ofertado dos quincenas en castellano y dos en euskera. En las imágenes, un grupo de euskera (arriba) y otro de castellano. ■

Berdinteka, berriz ere abian

Berdinteka bere ohiko lanari lotuko zaio urriaren erdialdean, herriko festen ondotik. Bi talde osatuko dira; bata gaztelaniaz eta bestea euskaraz. Berdintasun Zerbitzuak foileto bat banatuko du etxez etxe argibide guztiak emateko, eta udalaren webean ere egonen da eskuragarri (www.villava.es), zerbitzu egunak (bat hizkuntza bakoitzeko), ordutegia eta izena emateko epea finkatzean. Berdinteka udal ludoteka da, doakoa, eta genero-ikuspegian oinarriturik egiten du lana 6 eta 12 urte arteko haurrentzat.

La Berdinteka, de nuevo en marcha

La Berdinteka retomará su actividad a mediados de octubre, tras las fiestas. Habrá dos grupos, uno en castellano y otro en euskera, de 10 plazas cada uno. El Servicio de Igualdad buzoneará un folleto con la información completa, que también estará disponible en la web municipal (www.villava.es) cuando se fijen los días del servicio (uno por idioma), horario y plazo de inscripción.
La Berdinteka es una ludoteka municipal gratuita con un planteamiento de igualdad de género para niños/as de 6 a 12 años. ■

Irailean, Jubiloteka berriro jardunean

Udako atsedenaldiaren ondotik, Jubiloteka berriz ere lanean ari da erretiratuen egoitzan, irailaren 1az geroztik, ohiko ordutegian: 10:00etatik 13:00etara. Lekuak beteta daude, baina itxaron zerrenda zabalik dago; beraz, udal zerbitzu hori erabili nahi duenak zerrenda horretan eman beharko du izena.
Joan den ekainean, alzheimerrari buruzko hitzaldi bat egin zen, gaitz horrek jota daudenak (eta gaixoen zaintzaileak) nola zaindu azaltzeko, Jubiloteka erabiltzen dutenen senideentzat.

En septiembre vuelve la Jubiloteka

Tras el parón veraniego, la Jubiloteka retomó su actividad en el centro de Jubilados/as el 1 de septiembre en su horario habitual: de 10:00 a 13:00. Las plazas están cubiertas, pero permanece abierta una lista de espera en la que tienen que apuntarse las personas interesadas en utilizar este servicio municipal.
En junio se celebró una charla en torno al alzheimer y sus cuidados (incluidos los cuidados a las personas cuidadoras) dirigida a familiares de usuarios/as de la Jubiloteka. ■

■ **"EKOFEMINISMOA ETA HIRIKO BARATZAK".** Joan den maiatzean, era horretako bigarren ikastaroa bukatu zen; aurrekoa iragan azaroan egin zen, biak ere Atargi ikastetxeko baratzean. Udaberriko deialdian 10 emakume aritu ziren, eta guztiek ere ikasten jarraitzeko asmoa agertu dute. Irudian, haietako batzuk aratzeen ondoan ageri dira. **"ECOFEMINISMO Y HUERTOS URBANOS.** En mayo finalizó el segundo curso de estas características que acoge la huerta del centro Atargi, tras el realizado en noviembre. En esta segunda convocatoria han participado 10 mujeres que ya han mostrado su interés por seguir con el aprendizaje. En la imagen, posan algunas de ellas junto a parte de su trabajo. ■



talleres Villava
Reparación integral de:
• chapa • mecánica
• pintura • electricidad
POLÍGONO LANDAZABAL, PARCELA 1, NAVE 8
TEL.: 948 13 02 30 • FAX: 948 38 29 60

Atarrabia, berdintasunean oinarrituriko jaien alde

Aurreko aldietan bezala, Berdintasun Batzordeak bat egin du Nafarroako Gobernuak Udalendako abiarazi duen kanpainarekin berdintasunean oinarrituriko jaien alde. Zehazki, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuaren ardurapeko kanpaina da, lelo honekin: "Eta Jaietan… zer? Jaietan ere errespetuz bizi gara". Helburua da sexu-jazarpenari eta sexu-erasoei aurrera hartzea, beste behin ere azpimarratuz jaietan ere EZETZA errespetatu behar dela. Neska-mutilok, gizon-andreok jai guneez gozatu behar dugu, inolako sexu-jazarpenik eta sexu-erasorik pairatu gabe Berdintasun Alorrak eta, herriko gazteek antolaturik, kanpaina bat eginen da eraso sexistak jaietan prebenitzeko. Gazte afarian eta etxabez etxabe zapi moreak banatuko dira eta herritar interesatu guztiei ere emanen zaie, mezu honekin: "Eraso sexisten aurrean/ Ante agresiones sexistas PREST".

Villava, por unas fiestas igualitarias

La Comisión de Igualdad se suma un año más a la campaña de fiestas igualitarias que pone en marcha Gobierno de Navarra a través del INAFI (Instituto Navarro para la Familia y la Igualdad) para Entidades Locales bajo el lema "Y en fiestas... ¿qué? Vive las fiestas desde el respeto". El objetivo es prevenir el acoso y las agresiones sexuales, insistiendo una vez más en que el "NO" también en fiestas debe ser respetado. Chicas y chicos, mujeres y hombres, hemos de disfrutar de los espacios festivos sin padecer ninguna forma de agresión ni de acoso sexual.
Desde el área de Igualdad, y con la colaboración de jóvenes del pueblo, se va a realizar una campaña con el fin de prevenir las agresiones sexistas en fiestas. Se repartirán en la cena de jóvenes, por las bajeras, y a toda la ciudadanía interesada, pañuelos morados con el mensaje "Eraso sexisten aurrean/ Ante agresiones sexistas PREST". ■

Hezkidetza Atarrabiako ikasgeletan

Ikasturtea hastearekin hasiko da ezartzen Hezkidetza Programa Atargin (2 ikasgela), Paz de Zigandan (6 ikasgela) eta Pedro de Atarrabia institutuan (7 ikasgela), hiru ikastetxe horiek bat egin baitute udalaren ekimenarekin.
Saioak irailetik azarora eginen dira Lehen Hezkuntzako 5. mailako eta DBHko 3. mailako ikasleen artean. Hainbat gai jorratuko dira, besteak beste honako hauek: aukera berdintasuna emakumeen eta gizonen artean, eta neskatoen eta mutikoen artean; erantzunkidetasuna edo erantzukizun partekatua dela etxeko lanetan dela mendekoak zaintzeko lanetan; jarrera matxistei eta genero-indarkeriari aurrera hartzea; berdintasuna nerabezaroko harreman afektibo-sexualetan, eta ikasketak sexu-ikuspegia kontuan hartu gabe orientatzea.

Coeducación en las aulas de Villava

Con el comienzo del curso escolar, comenzará a implantarse el Programa Coeducativo en Atargi (2 aulas), Paz de Ziganda (6 aulas) e Instituto Pedro de Atarrabia (7 aulas), centros que se han sumado a esta iniciativa municipal.
Las sesiones tendrán lugar entre septiembre y noviembre con alumnado de 5º de Primaria y 3º de ESO. Entre los contenidos que se abordarán, la igualdad de oportunidades entre mujeres hombres, niñas y niños; la corresponsabilidad o responsabilidad compartida en las tareas del hogar y en las labores de cuidado de personas dependientes; la prevención de actitudes machistas y de violencia de género; la igualdad en las relaciones afectivo-sexuales durante la adolescencia; y la orientación de estudios sin sesgo de género. ■

Udalaren Kirol Eskolen denboraldi berria

4 eta 14 urte arteko neska-mutilentzat dira, irailaren 22an hasi eta heldu den urteko maiatzaren 31n bukatuko dira. Joan den abuztuaren 26az geroztik dago zabalik izena emateko epea, baina bakarrik kirol bakoitzean hartu gabe dauden lekuetan, joan den maiatz eta ekaineko berrinskripzio epearen ondotik. Leku hutsak izen-ematearen hurrenkeraren arabera beteko dira, eta Atarrabian erroldatuta daudenek izanen dute beti lehentasuna. Talde mistoak sortuko dira (gaztelania-euskara), jende gutxik izena ematen badu.
Egoera ekonomiko-sozial "bereziek" gutxiago ordainduko dute edo deus ere ez, aldez aurretik eskatuta, eta Udalaren Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoaren txostenekin bat.
Berrinskripzioak maiatz-ekainean.
Joan den denboraldian aritutako askok lekua erreserbatua dute denboraldi berrirako; izan ere, joan den maiatzean eta ekainean zabaldu zen erreserba egiteko epea. Datuen arabera, % 63k egin du erreserba bana beste, baina futbolean (% 87) eta eskubaloian (% 86) ehunekoak are altuagoak dira.
Udalaren Kirol Eskolen aurkezpena
Urrian, jaien ondotik, Udalaren Kirol Eskolen 2014-15 ikasturteko aurkezpena eta argazki ofiziala eginen dira Indurain Anaiak kiroldegian.

Nuevo curso en las Escuelas Deportivas Municipales

Las EDM, para niños y niñas de 4 a 14 años, arrancarán su actividad el 22 de septiembre y la finalizarán el 31 de mayo del año que viene. Desde el 26 de agosto se pueden realizar inscripciones en las plazas disponibles en cada disciplina, tras el periodo de reinscripción en mayo y junio para los/as participantes en la campaña anterior. Las vacantes se irán cubriendo en orden de inscripción, con preferencia siempre para las personas empadronadas en Villava. Se crearán grupos mixtos (castellano-euskera) en casos de baja inscripción.
Las situaciones económico-sociales "especiales" tendrán reducciones o gratuidad previa solicitud y de acuerdo a los criterios e informes del Servicio Social de Base del Ayuntamiento.
Reinscripciones en mayo-junio
Se mantiene muy alto el porcentaje de los/as inscrito/as en el curso pasado que han optado por reservar plaza para el que ahora empieza en el periodo de reinscripción habilitado en m en mayo y junio. Se ha situado en una media del 63%, dándose los porcentajesmás altos en fútbol (87%) y balonmano (86%).
Presentación de las EDM
En octubre, después de las fiestas, se realizará en el Polideportivo Hermanos Indurain, la presentación y foto oficial del curso 2014-15 de las Escuelas Deportivas Municipales. ■

CALYPSO WATCHES
FESTINA
swatch
SEIKO
LOTUS
FOSSIL
CASIO
IGER
Relojería y joyería en Villava
Pza. Miguel Indurain, 3 · 31610 Villava
T. 948 332 491 · www.relojeriaiger.com

LIMPIEZA HOGAR
ASISTENCIA ANCIANOS
Chica con experiencia se ofrece para tareas del hogar y/o atención de ancianos en Villava-Atarrabia.
Días, horas y precios a convenir.
Referencias: familia MONTEANO-SORBET
Teléfono: 672 797 685 (Elena)

■ Hobekuntzak kirol instalazioetan

Beti-Onak eta Club Ciclista Villavés klubek egindako eskaerari erantzute aldera, Udalaren Obra eta Lorategi Zerbitzua bukatzen ari da uda honetan Lorenzo Goicoako futbol-zelaiaren eta atletismo-txirrindularitza pistaren segurtasuna eta babesa hobetzeko lanak; zehazki, sare babesgarria 350 metro linealetan jarri da. Futbol baloikadak saihestu nahi izan dira, bai eta baloi galerak ere; horrela, gainera, indarrean dagoen araudia beteko da; hau da, ikusleek debekatua dute joko-zelaian sartzea.
Azkenik, bukatu egin dira Martiketeko eta Indurain Anaiak kiroldegiko aldageletako itaxurak konpon-tzeko lanak.

Mejoras en las instalaciones deportivas

Con el objetivo de atender una solicitud de los clubes Beti-Onak y Club Ciclista Villavés, el Servicio municipal de Obras y Jardines está culminando este verano la mejora de la seguridad y protección del campo de fútbol y pista de atletismo-ciclismo de Lorenzo Goicoa, con más de 350 metros lineales de red de protección. Se pretenden evitar los accidentes por balonazos de fútbol y la pérdida de los balones, así como ayudar a hacer cumplir la normativa que prohibe a los espectadores invadir el terreno de juego.
Finalmente, han finalizado las obras para arreglar las goteras existentes en los vestuarios de Martiket y en el Polideportivo Hermanos Indurain. ■

■ Kirol eta aisia instalazioak erabiltzeko ordutegiak zabaldu dira

Irailaren 1az geroztik, denbora gehiagoz erabil daitezke Lorenzo Goicoako eta Atargiko pista erdi estaliak, igande eta jaiegun arratsaldeetan kirola egiteko. Horrela, instalazio horiek 15:00etatik ilunabarrera bitarte erabiltzeko aukera izanen da. Erreserbak udal-igerilekuetan kudeatzen dira (astelehenetik larunbatera, 9:00etatik 21:00etara, eta igande eta jaiegunetan, 9:00etatik 13:00etara).
Eskatzaileek instalazioak garbi mantendu eta ikusten duten edozein akats jakinarazi beharko dituzte. Debeku da eskola-barrutian alkoholdun edariak edatea.

Se amplían los horarios de uso de instalaciones deportivo-recreativas

Las pistas semicubiertas de los centros escolares Lorenzo Goicoa y Atargi amplían a partir del día 1 de septiembre su horario de utilización para fines deportivo-reacreativos las tardes de los domingos y festivos. Se podrán hacer reservas para uso de estas instalaciones desde las 15:00 hasta el ocaso. Las reservas se gestionan en las piscinas municipales (de lunes a sábado de 9:00 a 21:00 y los domingos y festivos de 9:00 a 13:00).
Los/as solicitantes están obligados a mantener limpias las instalaciones y comunicar cualquier desperfecto que observen. Queda prohibido el consumo de bebidas alcohólicas dentro de los recintos escolares. ■

■ Foroa: kirol alorreko aurrekontuak

Irailaren 23an eginen da kirol alorreko aurrekontuak prestatzeko saio irekia; 19:00etan, Kultur Etxean. Herritar orok izanen du foroan parte hartzeko aukera. Zatoz! ekarpen guztiak ongi hartuko baititugu.

Foro de presupuestos del área de Deportes

La ciudadanía interesada en participar en la preparación de los presupuestos municipales del área de Deportes para 2015 tiene una cita el próximo martes 23 de septiembre a las 19:00 en la Casa de Cultura. ¡Anímate!, todas las aportaciones serán bien recibidas. ■

■ Igerilekuaren jaia

Igerilekuak joan den abuztuaren 9an ospatu zuen bere jaia; egun hodeitsua baina epe-epela atera zen. Egun hartan, 549 lagun joan ziren igerilekura. Uretako puzgarriez gain, hainbat txapelketa egin ziren (pilota, ping-pong, igeriketa, saskibaloia eta futbitoa) eta, horrekin batera, marrazki-lehiaketa, txokolate jana eta dantzaldia tabernako txokoan. Helduak, beren aldetik, tortilla eta mus txapelketan aritu ziren.

Fiesta de la piscina

El 9 de agosto, en un día nublado pero con con muy buena temperatura, la piscina celebró su fiesta del verano, en la que se registró una entrada de 549 personas. Además de los hinchables en el agua, hubo campeonatos de pelota, ping-pong, natación, baloncesto, futbito, concurso de dibujos, txocolatada y bailables en el txoko del bar. Los mayores pudieron participar en el campeonato de tortillas y en el torneo de mus. ■

■ Igerilekuak ere denboraldi berriari begira

Udaldiaren ondotik, Martiketeko igerilekuak denboraldi berrian murgildu dira, eta hamaika jarduera daude prest. Eskaintza oso zabala da jende mota guztientzat (niniak, haurrak, nerabeak, helduak, hirugarren adina). Liburuxka bat banatu da etxez etxe argibide zehatzak emateko; dena den, argibideak udalaren webean ere daude ikusgai (www.villava.es).
Bonu Gorria azpimarratu-ko dugu, hau da, aukera egokia da ordutegi oso malguan hainbat kirol egin nahi dituztenentzat. Barne daude zumba, TBC, body-art, interval-tonua eta indoor zikloa, aquagym, GAP, etab. Izena emateko epea irailaren 5a arte egon da zabalik 012 telefonoan. Leku librerik badago, irailaren 8tik aurrera hartu ahal izanen dira; horretarako, igerilekuetako harrera-lekura joan beharra dago. Argibideak 948 33 49 20 zenbakian.

Las piscinas retoman su actividad regular

Tras la temporada estival, las piscinas de Martiket retoman su ritmo habitual con el inicio de las actividades del nuevo curso, una oferta variada con opciones para todo tipo de público (bebés, niños/as, adolescentes, adultos, tercera edad). Un folleto buzoneado a toda la ciudadanía da buena cuenta de ella, también disponible en la web municipal (www.villava.es).
Destacamos aquí el Bono Gorria, una opción para quienes quieren practicar varios deportes con un horario muy flexible. Incluye pilates, zumba, TBC, body-art, interval-tono, ciclo Indoor, aquagym, GAP, etc.
Tras el periodo de inscripción, abierto hasta el 5 de septiembre en el teléfono 012, las plazas libres se podrán ocupar a partir del 8 de septiembre acudiendo a la recepción de las piscinas. Más información, en el 948 33 49 20. ■

Badator berriz ere Mintzakide programa

Ekimenaren bidez, euskaraz ongi mintzatzen den jendea euskaraz horren ongi hitz egiten ez dutenekin elkartzen da, euskaraz aritzeko eta, horrela, horren ongi mintzatzen ez direnen maila hobetzeko. Hamaika erakunde dira ekimenaren sustatzaileak, hala nola euskararen alde diharduten hainbat elkarte (Nafarroako Topagunea, Karrikaluze, Karrikiri, Euskaldun Biltoki, Zaldiko Maldiko), euskaltegiak (AEK, IKA, Hizkuntza Eskola Ofiziala, Zubiarte –Nafarroako Gobernuko euskaltegia–, Bai & By) eta komunikabideak (Iruñeko Euskalerria Irratia). Babesleak, berriz, hainbat udal dira (Burlata, Barañain, Berriozar, Atarrabia, Iruñea, Orkoien, Oltza Zendea, Etxauri, Bidaurreta, Tafalla eta Uharte), bai eta zenbait enpresa ere (Gertu Inprimategia eta Kukuxumusu).

Talde txikiak osatzen dira euskaraz hitz egiteko (bi, hiru, lau edo bost lagunekoak), eta kide horietako batek maila jasoa du. Astean behin biltzen dira, ordubetez edo pare bat orduz, eta talde bakoitzak adostasunez erabakitzen du zer egin; huntaz edo hartaz hitz egin, kirolean aritu, zerbaitetan jardun, familiak elkartu…

Mintzakiden aritu nahi duten Atarrabiako auzokideek Topagunea elkartearen egoitzara joan behar dute izena ematera (Ribed Parkea, 1). Matrikula-epea irailaren 16tik urriaren 19ra izanen da.

Vuelve el programa Mintzakide

Esta iniciativa, surgida para poner en comunicación a personas que hablan bien euskera con otras que no lo hablan tan bien para mejorar su nivel, está promovida por diferentes asociaciones que trabajan en la recuperación del euskera (Nafarroako Topagunea, Karrikaluze, Karrikiri, Euskaldun Biltoki, Zaldiko Maldiko), euskaltegis (AEK, IKA, Escuela Oficial de Idiomas, Zubiarte –euskaltegi del Gobierno de Navarra-, Bai & By), medios de comunicación (Euskalerria Irratia), y patrocinada por varios ayuntamientos (Burlada, Barañain, Berriozar, Villava, Pamplona, Orkoien, Cendea de Olza, Etxauri, Vidaurreta, Tafalla y Huarte) y empresas (Gertu Inprimategia y Kukuxumusu). Básicamente consiste en la creación de pequeños grupos de conversación (dos, tres, cuatro, cinco personas) en los que siempre hay una cuyo nivel de euskera es alto. Se reúnen una vez por semana durante una o dos horas, tiempo en el que autónomamente y por consenso deciden qué hacer: charlar, pasear, practicar algún deporte o alguna actividad, reunir a las familias...

Los vecinos y vecinas de Villava que quieran participar deben inscribirse en la sede de la asociación Topagunea (Parque Ribed, 1). Plazo de matrícula, del 16 de septiembre a 19 de octubre. ■

Haur eta gazteendako jarduerak ikasturte berrian

Aurreko urteetan bezala, Karrikaluze elkarteak hainbat jarduera abiaraziko ditu aisia eta denbora librea euskaraz lantzeko. Jarduerak herriko haur eta gazteendako dira. Udalak diruz lagundua, eskaintzan hiru programa daude: Larunblai, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako haurrentzat; Jauzi, 5. eta 6. mailakoentzat, eta Iseka, DBHko gazteentzat.

Izena Karrikaluzeren egoitzan eman behar da, irailaren azken astean (Ribed Parkea 1, behea); dena den, Iseka programarako izen-emateak ikastetxeetako postontzietan jasoko dira, irailaren 21etik 29ra. Argibideak, 948 35 57 39 telefonoan. Programa horien bidez, euskara maila hobetzeko aukera eskaini nahi zaie haur eta gazteei eskolatik kanpo, jolas eta tailerren bidez. Gainera, oso egokiak dira hainbat ikastetxetako ikasleen arteko harremanak sendotzeko.

Actividades infantiles y juveniles para el nuevo curso

Como en años anteriores, la asociación Karrikaluze pondrá en marcha tras el verano sus actividades de ocio y tiempo libre en euskera dirigidas a la población infantil y juvenil de Villava. Esta oferta, subvencionada por el Ayuntamiento, se concreta en tres programas: Larunblai, para niños y niñas de 3º y 4º de Primaria; Jauzi, dirigido al alumnado de 5º y 6º, e Iseka, para los y las jóvenes de ESO.

Las inscripciones, en el local de Karrikaluze la última semana de septiembre (Parque Ribed 1, bajo), a excepción de las del programa Iseka, que se recogerán en los buzones de los centros escolares del 21 al 29 de septiembre. Más información, en el teléfono 948 35 57 39. El objetivo de estos programas es ofrecer a la población infantil y juvenil la oportunidad de mejorar su nivel de euskera fuera del ámbito escolar a través de juegos y talleres. Además, se potencia la relación entre alumnado de distintos centros. ■

Zatoz euskara ikastera!

Helduak euskaltegietan matrikulatzera animatuko dituen kanpaina (orribikoak eta afixak) abiaraziko du sarri Atarrabiako Udalaren Euskara Zerbitzuak, beste hogeita zazpi udalerritako zerbitzuekin batera, betiere Nafarroako euskaltegiekin elkarlanean (AEK, IKA, Zubiarte Euskaltegi Publikoa, Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofiziala), eta Nafarroako Gobernuak babesturik.

Informazioa etxez etxe banatuko zaie herritar guztiei eta, horrez gain, Atarrabiak deialdi zehatza eginen die Atargi eta Paz de Ziganda ikastetxeetako ikasleen gurasoei, IKA Atarrabia euskaltegian haientzat berariaz sortutako taldeetan matrikulatzeko. Eskaintza gutunez jakinaraziko zaie gurasoei bi ikastetxe horien bitartez.

¡Anímate a aprender euskera!

El servicio municipal de euskera de Villava, junto con los servicios de otras veintisiete entidades locales, en colaboración con los euskaltegis de Navarra (AEK, IKA, Euskaltegi Público Zubiarte, Escueal Oficial de Idiomas de Pamplona) y con el patrocinio del Gobierno de Navarra, difundirán en breve una campaña (dípticos y carteles) para animar a las personas adultas a matricularse en los euskaltegis.

Además de participar en esta campaña mancomunada, que supondrá el buzoneo de la información a toda la ciudadanía, Villava realizará un llamamiento concreto a padres y madres de alumnado de Atargi y Paz de Ziganda para que se matriculen en grupos específicos creados para ellos en el euskaltegi IKA Atarrabia. Esta oferta se hará llegar por carta a través de estos dos centros escolares. ■

Irailak 30, diru-laguntzak eskatzeko azken eguna euskarazko udako kanpaldientzat

Irailaren 11n irekiko da udalaren diru-laguntza eskatzeko epea haurrendako udako euskal kanpaldietan parte hartu izanagatik. Epea irailaren 30ean itxiko da. Eskabidea Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar da. Baldintzak udalaren webean daude ikusgai (www.villava.es) edo Euskara Zerbitzuan eskuragai (948 13 66 80). Honatx betebehar batzuk: Lehen Hezkuntzako edo DBHko ikaslea izatea D ereduan (eskola publikoa edo ikastola), eta Atarrabian edo Ezkabarten erroldatua egotea bai kanpaldiak dirauen bitartean, bai laguntza eskatzeko unean eta ebatzi bitartean.

El 30 de septiembre, fecha límite para solicitar las subvenciones por los campamentos de verano en euskera

La convocatoria municipal de ayudas por la realización de campamentos de verano infantiles en euskera se abre el 11 de septiembre y permanecerá abierta hasta el día 30 del mismo mes. La instancia de solicitud se debe presentar en el Registro General del Ayuntamiento. El condicionado se puede consultar en la página web municipal (www.villava.es) o en el Servicio de Euskera (948 13 66 80). Algunos de los requisitos son ser estudiante de Primaria o ESO en el modelo D (escuela pública o ikastola) y estar empadronado/a en Villava o Ezkabarte mientras dure el campamento y en el momento de solicitar la ayuda y hasta su resolución. ■

FRENAUTO
FRENOS DEL AUTOMOVIL
Ricardo Bel, s/n
Tel. 948 33 24 33
31610 VILLAVA

hinode
María García Ibáñez
Colegiada nº 2281
Mediación Familiar
Asesoría Familiar
Dº Matrimonial
Separación, Divorcio,
Acuerdo Prematrimonial
mgarciai@micap.es
T. 630 418 276
C/ Mayor 10-12 Ofic. 12
Burlada

C/ Ezcaba, 5
31610 Villava
MI LLÁN
OPTICA
Tfno-Fax:
948 14 36 40

■ Antzerkia familia guztiarentzat

Tdiferencia konpainiak "Txanogorritxo rock" euskarazko antzezlana emanen du urriaren 18an, larunbatarekin, Kultur Etxeko antzokian; rock eta magia abentura bat da, guztiz aproposa heldu eta haurrentzat. Hilaren 25ean, larunbatarekin, berriro oholtzara igoko dira ordu berean, lana gaztelaniaz emateko. Sarrerek 3 € balio dute.

Beti kapa gorri txanoduna daraman neskatila bat bizi da basoan. Txanogorritxo esaten diote. Haren amona gaixo dago eta Txanogorritxok saski bat eraman behar dio ogia, esnea, eztia eta limoi pixka batekin… Eztarrirako ona da eta, horrela ahotsa sendatu ahal izanen zaio eta rock abestiak garrasi batean abestu ahal izanen ditu… Egon… unetxo bat… Baina hau ez al da Txanogorritxoren betiko ipuina...? Bai, baina txanogorritxo hau rockzalea da, eta oiesarena egiteko, barre egiteko eta gu besaulkietan dantzarazteko gogoa du, bai eta denok ustez aski ongi ezagutzen genuen ipuina goitik behera irauli egiteko ere.

Teatro para toda la familia

La compañía Tdiferencia pondrá en escena el sábado 18 de octubre a las 18:00 en el teatro de la Casa de Cultura la obra en euskera "Txanogorritxo rock", una aventura de rock y magia que enganchará por igual a mayores y a público infantil. El sábado 25 volverán a subirse al escenario a la misma hora para ofrecer la obra en castellano. Las entradas cuestan 3 €.
En el bosque vive una niña que siempre lleva una capa colorada con una capucha y todos le llaman Caperucita Roja. Su abuela está enferma y va a llevarle una cesta con pan, leche, miel y un poquito de limón, que es bueno para la garganta y así podrá recuperar la voz y cantar a grito pelado canciones de rock… Un momento, un momento… ¿Pero este no era el cuento de siempre de Caperucita Roja…? Sí, pero es una caperucita rockera, con muchas ganas de gamberrear y reírse, de hacernos bailar en las butacas y de dar un vuelco a este cuento que todos creíamos conocer tan bien. ■

■ **BIDAIA TOLEDORA.** Atarrabiako 55 auzokide Toledo eta Sigüenzara joan ziren ekainaren 13tik 15era, hiri horietako monumentu ospetsuenak bisitatzeko. Halaber, "El Griego de Toledo" erakusketa ikusi zuten Santa Cruz Museoan. **VIAJE A TOLEDO.** 55 vecinos y vecinas de Villava visitaron del 13 al 15 de junio los monumentos más emblemáticos de Toledo y Sigüenza, además de la exposición "El Griego de Toledo" en el Museo de Santa Cruz. ■

■ Guraso Eskola

Eskolak baliabideak eskaini nahi ditu gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak hobetzeko.
I. maila: "Aita-amaren rola gaur egun, eta oinarrizko jarrerak eta trebetasunak komunikatzeko eta hezteko".
- Astean behingo zazpi saio, urriaren 30etik aurrera (osteguna). 9:30etik 11:30era.
- Hamabostean behingo 7 saio. 19:00etik 21:00era. Azaroaren 4tik aurrera (asteartea).
Matrikulak 12 euro balio du. Izena urriaren 21etik 24ra eman behar da Kultur Etxean.

Informazio-solasaldiak
Solasaldi irekiak **Atarrabiako ikastetxeetan**, urriaren 13tik 21era. Honatx gaiak: "Gatazkari ikuspegi desberdin batetik ekitea. Gatazkak gure seme-alabekiko harremanetan"; "Autonomia eta onarpena gure haurrekiko harremanetan"; "Nola ekiten diogu gure seme-alaben heziketari"; eta "Etengabeko komunikazioan ari gara".
Argibideak: escuelademadresypadresvillava@gmail.com

Escuela de padres y madres

La Escuela se ofrece como un recurso para mejorar la relación con hijas e hijos.
Nivel I: "El rol de padre y madre hoy en día y actitudes y habilidades básicas para comunicar y educar".
- 7 sesiones semanales desde el jueves 30 de octubre. De 9:30 a 11:30.
- 7 sesiones quincenales. De 19:00 a 21:00. A partir del martes 4 de noviembre.
El **coste** de la matrícula es de 12 euros. **Fechas y lugar de la inscripción:** del 21 al 24 de octubre en la Casa de Cultura.

Charlas formativas
Charlas abiertas en los **Centros Escolares de Villava del 13 al 21 de octubre**. Los temas serán "Afrontamiento del conflicto desde una perspectiva diferente. Los conflictos en la relación con nuestras/os hijas/os"; "La autonomía y la aceptación en la relación con nuestros txikis"; "Cómo afrontamos la educación de nuestros hijas/os"; y "Estamos en continua comunicación".
Información en escuelademadresypadresvillava@gmail.com ■

■ Irailaren 20an, bertso saioa

Kultur Etxeko antzokian izanen da irailaren 20an, 19:00etatik aurrera, IKA euskaltegien koordinakundeak abiarazitako "Milaka Argi Nafarroan" kanpainaren barruan. Euskara sustatzeko ekimen bat da, Nafarroako hainbat Udalekin –besteak beste, Atarrabiakoarekin– lankidetzan antolatua. Sarrerak 9 € balio du.
Julio Soto, Sustrai Colina, Jon Maia, Igor Elortza eta Amets Arzallus bertsolariak arituko dira, eta Ainhoa Aranburu izanen da bertso-jartzailea.

El 20 de septiembre, festival de bertsolaris

El teatro de la Casa de Cultura acogerá el próximo 20 de septiembre a las 19:00 una sesión de bertsos que forma parte de la campaña "Milaka Argi Nafarroan", una iniciativa de promoción del euskera puesta en marcha por la coordinadora de euskaltegis IKA con la colaboración de ayuntamientos navarros, entre ellos el de Villava. La entrada cuesta 9 €.
Los bertsolaris que van a participar son Julio Soto, Sustrai Colina, Jon Maia, Igor Elortza y Amets Arzallus, que improvisarán a partir de los temas propuestos por Ainhoa Aranburu. ■

■ Antzerki Amateurraren III. Erakustaldia irailean

Saioak 20:00etan hasi eta Kultur Etxeko antzokian eginen dira; 3 € balioko dute. Aurten, guztira, lau antzezlan taularatuko dira Antzerki Amateurraren III. Erakustaldian: irailaren 19an (ostirala), 21ean (igandea), 26an (ostirala) eta 28an (igandea).
Hasteko eta bat, hilaren 19an, Aula Jus la Rotxa taldeak "Pecata minuta" antzeztuko du, hots, klausurako moja talde batek Ramón Barea 2013ko antzerki sari nazionalaren mundua esploratzea erabakiko du. Irailaren 21ean, igandean, berriz, Incierto Troupe taldearen txanda izanen da "Hermanas" lana emateko; urte sail handia igaro ondoren, hiru ahizpa berriz ere elkartuko dira, baina oraindik ere zauri batzuk orbandu gabe daude.
Irailaren 26an, ostiralarekin, Gabalzeka taldeak "El escenario del crimen" antzeztuko du; komedian hildako bat agertuko da besaulkien patioan baina bakarren batzuk gehiago hilko ditu barrez.

Azkenik, hilaren 28an, igandearekin, Tarima Beltza taldeak "Nunca fuimos héroes" antzezlana ekarriko du; hots, bakardade gorriak jota dauden bizirauleen istorio tragikomikoa; askori ispilu gertatuko zaiena.

III Muestra de Teatro Amateur en septiembre

En sesiones a las 20:00 y con entrada de 3 €, el teatro de la Casa de Cultura acogerá el viernes 19, domingo 21, viernes 26 y domingo 28 de septiembre, las propuestas que este año conforman la III Muestra de Teato Amateur.
Abrirá el cartel el viernes 19 la compañía Aula Jus la Rotxa con "Pecata minuta", una historia de monjas de clausura que deciden explorar el mundo, del premio nacional de teatro 2013 Ramón Barea. El domingo 21 de septiembre será el turno de "Hermanas", de la compañía Incierto Troupe, que nos acerca el reencuentro de tres hermanas muchos años después y con algunas heridas sin cicatrizar.
El viernes 26 de septiembre Gabalzeka presentará "El escenario del crimen", una comedia con muerto en el patio de butacas que matará de risa a unos cuantos más. El domingo 28 de septiembre, por último, la compañía Tarima Beltza pondrá en escena "Nunca fuimos héroes", una historia tragicómica de supervivientes enfermos de soledad en quienes muchos y muchas podrán reconocerse. ■

Ordutegia: 15:00etatik 21:00etara (irailaren 14ra arte, 8:30etik 14:30era) //
Horario: de 15:00 a 21:00. (hasta el 14 de septiembre, de 8:30 a 14:30).

Liburutegiko nobedadeak / Novedades Biblioteca

HELDUAK / ADULTOS: ESTEBAN, Ángel. *El escritor en su paraíso*. **Cáceres: Lumen Periférica, 2014. 376 p. REDONDO, Dolores.** *Zaindari ikusezina.* **Donostia: Erein, 2014. 479 p. PRADILLA, Alberto.** *El judío errado.* **Tafalla: Txalaparta, 2013. 247 p.**

HAURRAK-GAZTEAK / INFANTIL-JUVENIL: MUÑOZ PUELLES, Vicente. *La voz del árbol.* **Madrid: Anaya, 2014. 124 p. A partir de 10 años. MENDIGUREN, Xabier.** *Printzesa Txizontzia.* **Tafalla: Donostia: Elkar, 2014. 44 p. 7 urtetik. PUNTER, Russell.** *Stories of pirates*. **London: Usborne, 2014. 48 p. A partir de 8 años.**

Eskaintza haur tailerretan

Haur Tailerretan izena emateko epea irailaren 10etik 23ra bitarte izanen da, betiere soilik 902 21 70 12 telefonora deituta, 8:00etatik 19:00etara, astelehenetik ostiralera. Adierazpen plastikoan, Jolas dramatikoan eta Euskal dantzetan aritzeko tailerrerako matrikulazioak 80 € balio du Lehen Hezkuntzarako, eta 100 €, berriz, Euskal dantzetako tailerrak DBHko ikasleentzat. Tailerrak azaroaren lehen astean hasi eta 2015eko maiatzaren hirugarren astean bukatuko dira.

Oferta de talleres infantiles

El plazo para inscribirse en los Talleres Infantiles es del 10 al 23 de septiembre, exclusivamente a través del teléfono 902 21 70 12, de 8:00 a 19:00, de lunes a viernes. La matrícula de los talleres de Expresión plática, Juego dramático y Danzas vascas para Primaria cuesta 80 € y la del taller de Danzas vascas para alumnado de ESO, 100 €. Los talleres comenzarán la primera semana de noviembre y finalizarán la tercera semana de mayo de 2015. ■

TALLER / TAILERRA	MODALIDAD / ERA	CICLO/CURSO / ZIKLOA/MAILA	DÍA/ EGUNA	HORARIO / ORDUTEGIA
ADIERAZPEN PLASTIKOA / EXPRESIÓN PLÁSTICA	Gaztelania / Castellano	Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. / Inf y 1º ciclo Prim.	Asteazkena / Miércoles	16:30 – 17:30
ADIERAZPEN PLASTIKOA / EXPRESIÓN PLÁSTICA	Euskara / Euskera	Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. / Inf y 1º ciclo Prim.	Asteazkena / Miércoles	17:30 – 18:30
JOLAS DRAMATIKOA / JUEGO DRAMÁTICO	Gaztelania / Castellano	Lehen Hezkuntza 1. eta 2. / 1º y 2º ciclo Ed. Primaria	Astelehena / Lunes	17:00 – 18:15
EUSKAL DANTZAK / DANZAS VASCAS	Euskara / Euskera	Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. / 1º y 2º de Primaria	Osteguna / Jueves	17:00 - 18:10
EUSKAL DANTZAK / DANZAS VASCAS	Euskara / Euskera	Lehen Hezkuntzako 3. / 3º de Primaria	Ostirala /Viernes	17:00 - 18:10
EUSKAL DANTZAK / DANZAS VASCAS	Euskara / Euskera	Lehen Hezkuntzako 4. / 4º de Primaria	Asteartea / Martes	17:00 - 18:10
EUSKAL DANTZAK / DANZAS VASCAS	Euskara / Euskera	Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. / 5º y 6º de Primaria	Asteartea / Martes	17:00 - 18:15
EUSKAL DANTZAK / DANZAS VASCAS	Euskara / Euskera	DBHko 1. eta 2. / 1º y 2º ESO	Asteart eta ost / Mart y juev	19:00 - 20:00

Gizarte eta kultur ikastaroak, 16 urtetik gorakoentzat

Irailaren 16an bukatuko da erroldatuek izena emateko epea. Matrikula derrigorrez 902 21 70 12 telefonoan egin behar da, 8:00etatik 19:00etara, astelehenetik ostiralera. Izenematearen hurrenkerari jarraituko zaio zorrozki toki guztiak agortu arte.
Tokirik bada, erroldatuta ez daudenendako epea zabalduko da irailaren 17tik 19ra, Kultur Etxean baizik ez, 16:00etatik 21:00etara. Une horretan, ordainketa ordaindu izanaren frogagiria aurkeztu beharko dute.
Eskulanen eta Olio Pinturako ikastaroek 125 € balio dute erroldatuentzat, eta 170 €, erroldatuta ez daudenentzat. Bidaiariendako ingelesak, berriz, 90 € eta 130 € balio du, hurrenez hurren; Euskal Dantzek, Antzerki terapeutikoak eta Argazkigintzak, 70 € eta 100 €; eta, poesia hastapenak 20 € eta 40 €, hurrenez hurren. Irakurketaren Txokoa doakoa da erroldatuentzat, eta erroldatu gabeek, berriz, 25 euro ordaindu behar dute.

Cursos socioculturales para mayores de 16 años

El plazo de inscripción para personas empadronadas finaliza el 16 de septiembre. La matrícula debe efectuarse obligatoriamente en el teléfono 902 21 70 12, de 8:00 a 19:00, de lunes a viernes. El abono se realizará en la misma llamada. Se seguirá rigurosamente el orden de inscripción hasta agotar plazas.
En el caso de quedar vacantes, las personas no empadronadas podrán matricularse del 17 al 19 de septiembre, exclusivamente en la Casa de Cultura de 16:00 a 21:00. Deberán entregar en ese momento la carta de pago que justifique el abono.
El precio de los cursos de Manualidades y Pintura al Óleo es de 125 € para personas empadronadas y 170 para no empadronadas. Inglés para viajeros cuesta 90 € y 130 €, respectivamente; Danzas Vascas, Teatro terapéutico y Fotografía 70 € y 100 €; e iniciación a la poesía 20 € y 40 €, respectivamente. El Club de lectura es gratuito para empadronados y cuesta 25 € a las personas no empadronadas. ■

CURSO / IKASTAROA	DIA / EGUNA	HORARIO / ORDUTEGIA	FECHAS / DATAK
Antzerki Terapeutikoa / Teatro terapéutico	Asteazkena / Miércoles	10:00 – 11:30	urriak 29 - maiatzak 13 / 29 octubre – 13 mayo
Galdu beldurra poesiari / Pierde el miedo a la poesía	1., 2. eta 3. asteazkena / 1º, 2º y3º miércoles	19:30 – 21:00	azaroak 5 – otsailak 4 / 5 noviembre – 4 febrero
Irakurketaren Txokoa / Club de lectura	Hilaren 2. asteartea / 2º martes de mes	19:30 – 21:00	urriak 14 – maiatzak 12 / 14 octubre – 12 mayo
Irakurketaren Txokoa / Club de lectura	Hilaren 4. asteartea / 4º martes de mes	19:30 – 20:30	urriak 28 – maiatzak 26 / 28 octubre – 26 mayo
Ingelesa bidaiarientzat (1. maila) / Inglés para viajeros (1º nivel)	Osteguna / Jueves	19:45 – 21:15	urriak 30 – maiatzak 14 / 30 octubre – 14 mayo
Ingelesa bidaiarientzat (2. maila) / Inglés para viajeros (2º nivel)	Astelehena / Lunes	19:45 – 21:15	urriak 27 – maiatzak 11 / 27 octubre – 11 mayo
